

"KAZETARITZAN GARAI ZAILAK DATOZELA DIRUDI"

LANDER ARBELAITZ MITXELENA

2018ko maiatzaren 21ean, Donostiako kaleetan, ARGIAko kazetari Lander Arbelaitez hizkuntza eskubide urraketa baten berri eman izana "iraintzat" jo dute bi ertzain erdaldunek. Ertzaintzak barkamena eskatu du egun horretan gaizki jokatzearatik eta ARGIAk euskaltzale eta kazetarien babesa jaso du egindako lanagatik. Halere, martxoaren 20an, berriro ere, hedabide batek kazetaritzaren eta informazio askatasunaren defentsa egin beharko du epaitegietan.

TESTUA | AXIER LOPEZ

ARGAZKIAK | DANI BLANCO

Berriz ere kazetari bat albiste. Ez da oso seinale ona izaten.

Bai, oso gutxitan izaten da sari bat jasotzeko. Gehienetan arazoak dira. Batek agian pentsa lezake kazetariaren gustukoa izan daitekeela protagonismo hori, baina ez, oso desatsegina da.

"Kazetaritza ez da delitu" diogu, baina ez dirudi alderdi edo multinazionalen menpeko hedabideek arazo handirik dutenik lan egiteko.

Arazoak dauzka boterearentzat deserosoa den informazioa argitaratu nahi duenak. Kazetaritza hori da jazarria, salatua eta isundua munduan eta Euskal Herrian.

Ez da lehen aldia Poliziak ARGIAko kazetari baten aurka jotzen duena. Ezta zure kontra ere.

ARGIAk 100 urte bete ditu eta denetarik bizi izan dugu. Zentsura, *Euskaldunon Egunkariaren* itxieraren harira tortura, Mozal Legearekin zigorrak... Azken

urteotan kaleko protesten berri ematea izan da arazo iturri nagusia. Donostiako herri harresian niri gertatutakoa, atxilotaketa baten berri emateagatik zuri jarritako isuna edo Gipuzkoa Zutikeko kide batzuen identifikazioez informatzeagatik Gorka Bereziartuari egindako eraso, batzuk aipatzearen.

Ez da dinamika ona. Kazetariak beldurtzeko nahia dago, baina zorionez babestuta sentitu gara eta horri esker ahaldunduta atera gara komunikazio proiektua indartzen jarraitzeko gogoz.

Kasu hau ez da oso ohikoa. Gutxitan ikusten da Polizia publikoki herritarrei barkamena eskatzen eta ondoren horiek zigortzen.

Horrek erakusten du Ertzaintza barruan dagoen koordinazio eta komunikazio falta. Donostiako ertzain-etxeko buruak barkamena eskatu zuen esanez pertsona bati hizkuntza eskubideak urratu zizkiotela. Jende asko poztu ginen albiste ho-

rrekin. Zerbait berria zen. Baina gerora, hizkuntza eskubideak urratu zizkioten pertsonari, Eneka Alvarezi, isuna jarri diote Mozal Legea erabiliz, eta gertatutakoa grabatu zuen kazetariaren aurka salaketa jarri dute. Areago, nire aurkako salaketan bi ertzainek diote sare sozialetan gezurrak esaten jarraitzen dudala, adibidez, esan dugulako haiek barkamena eskatu dutela. Ez da batere serioa. Broma bat dirudi guztiak. Ertzaintza barruan arazoak eta kontraesanak dituzte, autoritatearekin, komunikazioarekin eta euskararekin lotuta.

"Berariaz eskatu digute bi ertzainen partez barkamena helarazteko", zioen Ertzaintzaren komunikatuak. ARGIAren aurkako salaketan, aldiz, bi ertzainek diote ezetz, ez dutela inoiz inori barkamenik eskatu horrengatik. Horrek erakusten du Ertzaintzaren barkamen ofizial horretan gezurra esan zutela, bi ertzain horiek barkamena eskatu



nahi zutela adierazi zutenean. Eraso euskarafoboa egin eta gainera beraiek azpimarratu dute ez diotela inori barkamenik eskatu nahi. Oso argigarria da. Euskaldunok, tamalez, ohituta gaude horrelako jarrerak sufritzen.

Zein da zure aurkako salaketaren tesi nagusia?

Bi ertzainek jarritako salaketan diote ARGIAk esan duela Eneka Alvarezen identifikazioaren arrazoia izan zela ertzainei euskaraz hitz egin eta hala artatzeko eskatu izana. Hori haien aurkako iraintzat jotzen dute. Bideoa oso argigarria da, ordea. Beraiek diote, Alvarezek prentsurrekoaren arduradunen identifikazioa oztopatu zuela. Hori gezur borbila da, Alvarezek ez zuen ezer oztopatu. Arduradunak hogeiei minutu lehenago identifikatu zituzten. Hori ere bideoan jasota dago, gainera. Alvarez hizkuntza gatazka baten ondorioz identifikatu zuten. Horrela ulertu genuen han ginen guz-

tiok eta horrela ulertu dute gerora bideoa ikusi duten guztiek.

Han zeundeten asko identifikarazi zintuzteten, baina ertzainak identifikatu al ziren?

Ez, baina han gertatzen ari zena grabatzen hasi zen jende guztia sistematikoki identifikatu zuten. Argi eta garbi utziz, beren protokoloetan dagoela polizia operazioaren bat grabatzen duen edozein pertsona, izan kazetaria ala ez, identifikatu behar dutela. Azken urteotan joera hori oso agerikoa da. Niri askotan gertatu zait. Lana oztopatzeaz gain, sarri, beldurra ere eragiten dizute. Eta gainera, behin baino gehiagotan gezurra erabiltzen dute “ezin da grabatu” esanez.

Salatu zaituen ertzain batek hori bera esan zizun, ezta?

Bai, horrelako eztabaida bat izan genuen ertzain horietako batekin. Grabatzen ari ginenean, esan zigun ezin genuela gra-

batu. Nik erantzun nion baietz, grabatu genezakeela, gure eskubidea dela eta zabaldu ere egingo genuela, eta bere burua bideotan ikusteak min egiten bazion, esal zezala aurpegia. Gordin samarra izan zen, baina grabatzen jarraitu genuen.

Hemerotekari begira, euskaraz ari denari, “que sí, que sí, lo que te de la gana, pero identificate” moduko erantzun euskarafoboak ez dira salbuespen.

Bai, horrelakoak esan zizkion ertzain batek Eneka Alvarez. “*Me da igual que hables en castellano o en euskera, que te voy a identificar aquí o en base*” edo “*me estas entendiendo perfectamente*”. Legeak dio herritarrak eskubidea duela berak hautatutako hizkuntza ofizialean artatua izateko. Baina une horretan lege eta eskubide horiek ertzainei ez zitzaizkien axola.

Tamalez, euskaldunok badakigu horrelako gauzak gertatzen direla, baina ez gaude oso ohituta salatzeraz. Urrunetik datorkigun zerbait da. Oso geuregana-



tuta dugu euskaraz hitz egitea bigarren mailako zerbait dela, eta autoritateen aurrean ahaldunduta agertzea arazo iturri bat izan daitekeela. Eta guk, bi hizkuntza dakizkigunez, azkenerako gaztelaniara jotzen dugu. Niri asko gustatu zait Eneka Alvarezek ARGIA esandakoa: "Hizkuntza eskubideak errespetatu arte, talka izango da". Euskal Herrian milaka pertsona prest gaudelako hizkuntzari eusteko. Talka horretan arazoa ez dauka herritar ahaldunduak, administrazioak baizik.

Datuak argigarriak dira: 8.000 bat ertzainetatik, 400 inguruk soilik zuten EGaren pareko titulaziorik 2018 hasieran.

Arkaitz Zarragak hala salatu zuen bere kasuaren harira. Euskaraz egiteko eskatzea ofentsatzat hartu zuten Bilboko udaltzain batzuek. Zarraga euskaltegiko irakaslea da, eta jende asko ikusi du, tartean udaltzainak eta poliziak, euskara ikasten duena bakarrik titulua lortzeko, euskaldunon eskubideak bigarren mailan utzita. Polizien kasuetan formazio lan handia dago egiteko. Eta hori gure esku dago. Hemengo instituzioen esku, Madrili ez zaio baimenik eskatu behar hori egiteko. Bertako agintariak galtzak bete lan dabilta, eta hobe lukete autogobernua hitzez hainbeste goraipatu beharrean, praktikan jartzea. Hasteko eta behin, kaleko agenteei euskarari dagokion legea zein den erakusten. Onartezina da poliziak izatea legea urratzen dutenak. Zarragak ondo zioen moduan, isuna jarriko baliote hizkuntza eskubideak urratzen dituenari agian egoera bestelakoa litzateke. Baina daukaguna kontrakoa da, zigortutakoak ahaldundutako euskaldunak dira. Ertzaintzak kasu hauetan korporatibismoz jokutzen du eta goikoek azpikoak babesten dituzte.



Errenteriako Udala

Herriko Plaza z/g - telf: 943 449 600 - www.errenteria.eus



MOZALIK EZ

Polizia denek jakin beharko lukete euskaraz, eta hala ez den bitartean, ka-
lean herritarrekin harreman zuzena du-
ten patruiletan, gutxienez, polizia eus-
kaldunak egon behar lukete.

Polizia eredu sasimilitar, itxi eta opaku horri noizbait eskua sartuko al zaio?

Astindu bat behar du, argi dago. Ziklo historiko bat amaitu da Euskal Herrian. Gustatu ala ez. Garaiak aldatzen doaz, eta gu gaur egungo seme-alabak gara. Ingu-
rua aldatzen ari den bezala, Ertzaintzak ere egokitu beharko du bere burua. Po-
lizia ereduaz eztabaidatu beharko dugu, ezta? Hortaz ezin al da hitz egin? Ala hor daudenek bere postua eta botereari nola eutsi da kontua? Bada, hala bada, herrita-
rren eta administrazioaren arteko tartea gero eta handiagoa izango da. Egin beha-
rreko lan handi bat dago hor, herri bezala.

Edonola ere, bere lan publikoaren berri ematea ez dirudi asko gustatzen zaionik Poliziari. Ez hemengoari, ez inongoari.

Ez zaio inori gus-
tatzen bere lana fiskalizatua izate-
a. Baina hori da gure lana. Guk ba-
liabide gutxi dugu, talde txikia gara, bai-
na kalean gaudenean eta gure begi aurrean zerbait gertatzen denean, zer da egin behar duguna? Gure ardura hori kon-
tatzea da.

Baina, begira, arazoa handiagoa da. Hizkuntz eskubide urraketa hori gerta-
tu zenean, ARGIAk eta *Irutxuloko Hitzak* bakarrik informatu zuten gertatuta-
koaz. Ez zen beste inon ezer argitaratu, nahiz eta bideoa oso argigarria izan eta sare sozialetan asko zabaldu. Horrek ere zer pentsatua ematen du, ezta?

Horregatik ARGIAN gure lanetako bat da zabaltzea hedabide handiek kontatu gabe uzten dutena. Eta horrek arazoak dakartzala? Batzuetan bai. Etxe honeta-
ko veteranoek diotenez, independentzia garesti ordaintzen da, alde guztietatik.

Beraz, Polizia grabatu behar al dugu?

Noski, baina ez haien aurkako erronka gisa. Kalean gertatzen denaz informa-
tzea eskubidea delako eta herritarrek eskubidea dutelako informatuta egote-

ko, polizia operazioez barne.

Poliziei deseroso egiten bazaie haien aurpegiak bideoetan edo argazkietan ikustea, orduan konponbide erraza dau-
kate: aurpegia estali eta kito. Baina nos-
ki, aurpegia eman nahi ez duen Poliziak nekez esan ahal izango du herritarren gertuko delat.

Hortaz, ertzainen, guardia zibilen, espainiar edo frantziar polizien aurpegiak lausotuta zabaltzeak ez dirudi oso ariketa gardenena.

Polizien identitatea ezkutatzeko ardura hori kazetarion bizkarren gainean uz-
ten saiatu dira. Hori ezin dugu onartu. Kalean zerbait gertatzen ari denean, ezin al dugu zuzenean ezer kontatu? Etxera joan eta polizien aurpegiak ba-
nan-banan estaltzeko, bi minutuko bi-
deo bat editatzen bost ordu pasa behar al dugu? Hori ez da zilegia. Aur-
pegia ez ikustea nahi ba-
dute, hori funtzionario publikoen ardura da, ez kazetariona.

ARGIAN erabaki dugu hori ez du-
gula egingo.

Espazio publikoan zer egin dezakegun eta zer ez argitzeko, Mozal Legearen moduko legeak ez dira oso lagungarriak.

Oso argigarria izan zen Mozal Legearen sustatzaile nagusietako batek, Espainiako barne ministro ohi Fernán-
dez Díazek, esandakoa *Salvados* saioan. Jordi Évolek galdetu zion ea Polizia gra-
batu daitekeen, eta haren erantzuna bo-
robila izan zen: "Bai". Kito eztabaida.

Polizien jardun publikoaren berri ematean kazetariok ez dugu inoren se-
gurtasuna arriskuan jartzen. Horretan irmo jokatu behar dugu, bestela gure buruari harrika ariko gara, gure lana zailtzen.

Mozal Legeari dagokionez, hipokre-
sia izugarria da hemen duguna. Eusko Legebiltzarrak ez zuela aplikatuko esan zuenetik, ia astero argitaratu dugu al-
bisteren bat isunei buruz. Espainiatik inposatutako legea dela diote eta gaia beste era batera kudeatzeko aukera ba-
dute ere, Ertzaintza sistematikoki ari da aplikatzen Mozal Legea. Antzerki horretan sinesgarritasuna galtzen dute.

Informazio askatasunaren urraketei aurre egiteko, ondo antolatuta al gaude Euskal Herrian?

Hobeto antolatu gaitezke. Topatuko Iraitz Salegiren kasua datorkit burura. Terrorismoa goratzea leporatu zioten ekitaldi publiko baten berri emateaga-
tik eta ehunka kazetarik adierazi genion babesa. Badago eskubideen alde ager-
tzeko prest dagoen kazetari multzo han-
di bat, baina ez dago antolatuta. Eman genezake pauso bat aurrera informazio eskubidearen defentsa egiteko. Garai zailak datozela dirudi. ●

